

[HERNANI](#)

Sagarpolit aurkeztu berri da, sagar eta sagardoan oinarritutako lehen bitxi sorta

Kronika - Erredakzioa 2022-10-16 00:00



Sagarpolit bitxi sorta aurkeztu zuten ostegunean Iparragirre sagardotegian.

Nekane Flamarike eta Arantza Eguzkizak elkarlanean landu dute sagardogintzari lotutako bitxi sorta.

Iparragirre Sagardotegian Sagarpolit, Pitxipoliten sagardogintzari lotutako bitxi sorta aurkeztu zuten pasa den ostegunean. Nekane Flamarike egileak eta Arantza Eguzkiza Sagardogileak elkarlanean egin duten lanaren emaitza izan da.

Bertan parte hartu zuten Sagardo sektoreko hainbat ordezkariak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Hernaniko Udalak eta Hernaniko beste hainbat eragilek ere. Proiektuaren beraren garrantzia eta balioa azpimarratu nahi izan zituzten Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta Gipuzkoako Sagardogileen zein Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren ordezkariak.

Iparragirre Sagardotegiko Arantza Eguzkizak izan zuen bitxiak egiteko ideia, sagarra eta sagardoari beste aukera bat eman nahian eta ate berri bat irekitzeko irrikaz. Ez zekien, ordea, nola eman forma eta Nekane Flamarikeri, Pitxipolit markaren sortzaile eta egileari, proposatu zion buruan zebilkiena. Berak segituan ulertu eta eman zion forma: sagarra bihurtu zuen protagonista. Sagarra ardatz hartuta diseinatu eta ekoiztu ditu bost bildumak.

«Balio kultural eta sinbolikoa dute bost bildumek»

«Balio kultural eta sinboliko handia du sagardo sektorearentzat sagarrak, eta hau bitxi bihurtzeak. Sagarra baita gure bitxia preziatua eta ezinbestekoa», aipatu zuten egileek aurkezpenean. Hainbat koloretan diseinatu ditu bitxiak, eta bilduma bakoitzak sagar barietate bati egiten dio ohore: Errezila (teila kolorea), Berde-Urdin (turkesa kolorea), Goikoetxe (bordele kolorea), Txalaka (esmeralda-berde) eta Moko (berde-gorria).

Belarritakoak, eskumuturrekoak, eraztunak, lepokoak... ditu bilduma bakoitzak, esmalte eta zilarrarekin jolas eginez. Pitxipoliten zuzenean eros litezke, 653 712 553 telefono zenbakian/ nekf@hotmail.com edota [@sagarpolit](https://www.instagram.com/sagarpolit) instagram kontuaren bidez, baita urtean zehar ondorengo azoketan ere: Donostiako Euskal Jaietan udaletxe parean, eta gabonetako azokan Urdaneta kalean.



Iparragirre Sagardotegiko Arantza Eguzkizak aspaldian buruan zuen ametsa beteta ikusi ahal izan du hala, eta sagardogintza kuttunari sagar-bitxi bilduma utzi dio hala ondare gisa, Nekane Flamarikeren sorkuntza lanari esker.

[Kultura Hernani](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun ▼



Ikusienak



[Istripua izan zen atzo gauean, Zikuñagan](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 16, 11:44 [Hernani](#)



[Eskerrik asko Isabel Zubillaga Huici](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 16, 00:00 [Hernani](#)



[«Umea hil berritan, kirolfanoan bertan entzun genuen aurrenekoz: 'lasai, izango duzue beste bat'»](#)

[Erreportajeak](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 14 [Hernani](#)



[Aiatz Hernani eta Joxeba Lizeaga garaile, Ereñotzun](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 16, 00:00 [Ereñotzu](#)



[«Helburua ez da marka zehatz bat lortzea, kirola taldean egiteko aukera sortzea baizik»](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 14 [Astigarraga](#)



[Zuhaitz bat erori da Leokako labaderoko teilatura, haizeak eraginda](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 17, 12:40 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [AIURRI](#) [ALEA](#) [AMEZTI](#) [ANBOTO](#) [ANTXETA](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [BARREN](#) [BEGITU](#)
[DEUSTUALDEA PREST](#) [ERLO TELEBISTA](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GEURIA](#) [GOIENA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [MAXIXATZEN](#) [NOAUA](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#) [PLAENTXIA](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)